

Bizia argazkitan

Wildlife Photographer of the Year 2024

Igebelarren azpian zapaburu-saldo bat dabil ige-grian, hondoko harrapariengandik ihesi, azaleko ure-tara iritsi nahian, han elikatzeko.

Shane Gross argazkilari kanadarrak orduak pasa zituen urpean Cedar Lake-n (Vancouver), igebelar-artean, hondoko lohia harrotzea saihestuz, horrek asko murriztuko bailuke ikuspena.

Horrela lortu zuen argazki eder hau, eta horrekin irabazi du 2024ko [Wildlife Photographer of the Year](#) basabizitzaren argazki-lehiaketa. Epaimahaiak nabarmendu ditu argazki honen "argia eta energia, eta bikain jasotzea zapaburuaren eta ingurunearen arteko lotura". Gainera, azpimarratu dute argazkiak agerian uzten duela "askotan aintzat hartzen ez diren espezieak ere beste batzuk bezain ikusgarriak izan litezkeela".

Hurrengo orrietan, lehiaketan nabarmendu diren beste argazki batzuk.



Biziaren saldoa (*The Swarm of Life*)
Shane Gros (Kanada)



ARG.: ©Shane Gros/Wildlife Photographer of the Year 2024



Eraispen-eskuadroia (*The Demolition Squad*)

Ingo Arndt (Alemania)

Inurri gorriek kakalardo bat nolako eraginkortasunez zatitu zuten jaso zuen Ingo Arndtek. Habiaren sarreratik kabitzeko adinako zati txikitik desegin zuten. Minutu batzuk habiaren ondoan etzanda egon ondoren, inurritz beteta bukatu zuen Arndtek berak ere.



ARG.: ©Ingo Arndt/Wildlife Photographer of the Year 2024



ARG.: ©Justin Gilligan/Wildlife Photographer of the Year 2024

Plastiko hilgarritzko dieta
(A Diet of Deadly Plastic)
Justin Gilligan (Australia)

Hildako itsas hegazti baten (*Ardenna carneipes*) digestio-hoditik ateratako plastikozko 403 piezerekin egin zuen mosaiko hau Justin Gilliganek.



[Adrift Lab](#) ikerketa-taldearen lana dokumentatzen aritu da Gilligan hainbat urtez. Talde horrek mundu osoko biologoak biltzen ditu, plastikoen kutsadurak itsas ekosistemetan duen eragina

aztertzeko. Ikusi dute Lord Howe uhartean (Australia) ugaltzen diren *Ardena carneipes* helduen hiru laurdenek eta txiten % 100ek plastikoa dutela barruan.





Borroka hezegunean (*Wetland Wrestle*)

Karine Aigner (AEB)

Zingiretako orein batzuei argazkiak ateratzeko gelditu zirenean, uretan forma arraro bat sumatu zuen Karine Aignerrek. Prismatikoekin begiratu, eta berehala ezagutu zuen anakonda hori baten azala, kaiman baten muturraren inguruan. Borrokan ari ziren.

Kaimanek denetarik jaten dute, baita sugeak ere. Eta anakondek, hazi ahala, kaimanak ere sartzen dituzten euren dietan.

Sugearen bizkarrean, narrastien odolaz elikatzen diren bi ezpara aukera baliatzen ari dira.



ARG.: ©John E. Marriott/Wildlife Photographer of the Year 2024



Zain (*On Watch*)

John E. Marriott (Kanada)

Katamotz-familia bat, atseden hartzen. Gazteak atzean, haize hotzetik nola edo hala babestuta.

John E. Marriottek ia astebete eman zuen familia honi jarraika baso elurtuetan barrena, oinatz freskoek non zeuden erakutsi zioten arte. Distantziari eutsi zion, enbarazurik egingo ez ziela ziurtatzeko.